

Barandiarani grabatutako hitzak aurkeztu ditu Koldo Azpiazuk

J. L. Z. / DONOSTIA

Joxemiel Barandiaranen hitzak jasotzen dituen zinta aurkeztu zuen atzo hainbat komunikabidetan Koldo Azpiazu artista hernaniarra, Jorge Oteizaren aurkako bere salaketak indartu asmoz. Grabazio horretan, Oteizak Aita Donostiaren omenez egindako hilarria Agiñan ezarri izanaren aurka mintzatzen da Barandiaran, harrespila bat hautsi zutela gogoratuz.

Artean hilarria egin gabe zenean, Barandiaran Oteizari lekuaren desegokitasunaren berri ematera joan zenean, artista orotarrak eman zion erantzuna zein izan zen ere azaltzen du ikerlariak, 1981eko abenduaren 17ko data duen zinta horretan: «Harrespila batek adina balioko duen monumentua utziko du hemen», esan omen zion Oteizak Barandiarani.

LEKU ALDAKETA PROPOSATU

Agiñako hilarriaren puskaketa ikertzen ari den batzordeari lekukotasun hori aurkezteko asmoa du bihar Azpiazuk, ikerketa batzorde honek Lesakako Herriko Etxean, goizeko 11.30etan egingo duen bileran. Zinta honetan oinarriturik, hilarria eta baseliza lekuz aldatzeko eskabidea egiteko asmoa du Azpiazuk, EGUNKARIAri joan den astean iragarri zion bezala.

Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak eskatu zion Koldo Azpiazi ikerketa batzordean parte hartzeko, Oteizak puskaketaren ardura Azpiazi ego-tzi baino lehen, eta Azpiazuk berak—erruduntasuna ukatuz betiere—puskaketa ontzat eta pozgarritzat eman baino lehen.

Bestalde, Koldo Azpiazuk Jorge Oteizaren aurkako salaketa ezarri zuen joan den astelehenean Donostiako epaitegian. Oteizak gezurra esan, difamatu, iraindu, mehatxatu eta koakzionatu egin zuela salatu du Azpiazuk. Horretaz gain, Oteizaren aurkako salaketa gogor eta gordinak biltzen dituzten komunikatu eta agiri berriak igorri ditu hainbat komunikabidetara.

Oteiza fundazioak, bere aldetik, Iruñeko fiskaltzan Agiñako eskulturaren puskaketari buruzko dokumentazioa aurkeztu du.

Hernandez Mendizabal: «Norberaren nortasuna agertzen da lan guztietan»

Donostiako Kutzako aretoan berak egindako 116 lan ikus daitezke

Urtarrilaren 29ra bitartean, Tomas Hernandez Mendizabal pintore donostiarraren 116 lan biltzen dituen erakusketa ikusi ahal izango da Donostiako Kutzak Garibai kalean duen aretoan. Erakusketaren komisarioa beste artista gipuzkoar ezaguna da: Ricardo Ugarte eskultorea. Hernandez Mendizabalekin mintzatu gara, bere lanaren berri jakiteko.

JUAN LUIS ZABALA / DONOSTIA

EGUNKARIA.— Noizkoak dira erakusketa honetako lanak?

T. HERNANDEZ MENDIZABAL.— Lan batzuk 1969koak dira eta beste batzuk 1973-74 ingurukoak. Baina lanik gehienak oraingoak dira, berriak. Erakusketa hau nire azken lanak erakusteko egin dut batipat. Duela zenbait urte egindako lanak jarri baditut, obra osoaren nondik-norakoaren berri emateko izan da. Nire aurreko lanak ezagutu ez dituztenek, edota ahazturik dituztenek, nire ibilbidea zein izan den ezagutzeko aukera izan dezaten, obra berriak perspektiba zabalago batez ikus ditzaten.

EGUNKARIA.— Guztira 116 pieza dira, baina teknika eta jenero askotako lanak bildu dituzu.

HERNANDEZ.— Inprimitu gabeko pintura lanak diren 11 kartel daude, 24 grabatu, arkatzez egindako marrazkiak, eskulturarako maketak... Dena den, erakusketaren gorputz nagusia pintura akrilikoz landutako 50 lanek osatzen dute batipat.

EGUNKARIA.— Beraz, teknika eta jenero ezberdinak nahastea nahiago izan duzu, bakarrean zentratzea baino.

HERNANDEZ.— Emaizta tekniko eta materiala ezberdina izan arren, norberaren ezaugarriak, norberaren nortasuna beti agertzen dira, edozein lanetan.

EGUNKARIA.— Lan berri hauek agertzen al dute aurrekoarekiko nolabaiteko hausturarik?

HERNANDEZ.— Duela lau urte San Telmon egin nuen erakusketa antologikoan erakutsi nituen lanetik gaur egunekoetara badago alderik. Arazoei ematen zaizkien irtenbideak ezberdinak dira neurri batean. Dena den, gaiak beti antzekoak dira eta beti nabari da egilea berbera izan dela. Bilduma bat amaitzen dudanean, inoiz ez dakit zer gertatuko den hurrengoarekin. Eta horixe da lan honek duen gauzarik ederrenetakoa, mihise zuriarekiko borroka. Horrek ematen digu bizipoza eta bizitasuna. Aldez aurretik jakingo balitz, ez luke zentzurik izango.



Tomas Hernandez Mendizabal, bere lan baten aurrean. ANDER GILLENEA

SOSLAIA

Besarkada bat Oteizari

Donostian jaio zen Tomas Hernandez Mendizabal, 1940an, Gros auzoan. Txiki-txikitatik izan zuen marrazteko eta pintatzeko zaletasuna. Gipuzkoako Elkarte Artistikotik pasa zen, eta Ascensio Martiarena izan zuen bere lehen maisu handia, oraindik ere ahazturik ez duena. Harrezkero, erakusketa ugari egin eta sariak ere asko irabazi ditu. Euskal arteak gaur egun bizi duen egoeraz eta azken egunotako gatazkez galdetu beharrik gabe, bere kabuz, Oteizarekiko elkertasuna adierazi nahi izan digu Hernandez Mendizabalek: «Alferrik dabilta Oteizaren aurka. Oteiza eraitsi nahi izatea, euskal kulturaren basoan sendo erroturiko haritz zaharra bota nahi izatea da. Hemendik bertatik, besarkada estu eta adiskidetsua bidali nahi nioke».

EGUNKARIA.— Zure lanen artean, kartelak izan dira, dudarik gabe, ezagunenak publiko zabalarentzat.

HERNANDEZ.— Bai, horrela da. Horrek badu bere logika ere. Kartelak kalean daude, eta kalean jende guztia ibiltzen da. Erakusketetara, aitzitik, artearen mundua jarraitzen dutenak baino ez dira joaten. Dena den, niretzat kartela pintura da, koadroa da. Ez dugu ahaztu behar pinturatik sortu zela kartelgintza, Toulouse Lautrec maisuarengandik. Pinturaz egindako kartelak eta bestelako tekniken bidez egindakoak bereizi behar dira, nire ustez. Bilboko Arte Ederretako museoan pinturaz egindako 70 kartel ditut. Erakusketa honetan dauden 11 kartelak ere inprimitu gabekoak dira, pinturaz eginda-

koak. Dena den, inprimituak ere 130etik gora egin eta argitaratu izan ditut, 1964az geroztik.

Plagioa leporatu dio Juan Olasagastik Ricardo Iriarteri

DONOSTIA

Juan Olasagasti pintore donostiarrak Ricardo Iriarte argazkilariak bere lana plagiatu egin duela salatu du. Iriartek ezezik, beste artista batzuek ere plagiatu dute Olasagastiren lana, azken honek aditza eman duenez.

Donostian 'Momentos' ('Uneak') izeneko erakusketa egin zuenean, arrain kaxa bat erabili zuen Jon Olasagastik 'Aurkikuntza' izeneko bere lanerako: arrain kaxa batean lau harri biribil ezarri zituen. Ricardo Iriartek ere arrain kaxak erabili ditu egun Donostiako San Telmon duen erakusketako lan batzuetan. Olasagastiren iritziz, Iriartek plagiatu egin du bere lana: «Ricardo Iriartek batere lotsarik gabe kopiatu du nire lana. Objeto berbera erabili du, eta gainera era berean kokatu du, neuk bezalaxe», adierazi du pintore donostiarrak.

Iriartek, bere aldetik, ez Olasagasti eta ez bere lana ez dituela ezagutzen esan du, eta ez duela plagiorik egin. «Olasagastik kopiatu egin diodala uste badu, hori bere arazoa da», dio Iriartek. «Benetan harrituta nago, inoiz ez baitut bere erakusketarik ikusi eta berari buruz ez baitakit ezer».

Olasagastik adierazi duenez, ez da Iriarte izan 'Aurkikuntza' plagiatu duen bakarra, eta artista gehiago ere izan dira arrain kaxa erabiltzeko ideia kopiatu diotenak. Nahiz eta izenik eman ez, plagiatzailer horiek nor izan daitezkeen jakinarazi du Olasagastik: «Batek Artista Berrien Lehiaketa irabazi zuen behin; bestea, berriz, Donostiako Jazzaldiaren azken kartelaren egilea da. Zorionez euren izenak ez ditut gogoan», adierazi du.



ANTSOAINO UDALA

EDIKTUA

Antsoaino Udal Plenoak 1992ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Programatu Gabeko Lurzoru Urbanizagarria bezala kalifikatutako Unitatea hasiera batean aldatzea erabaki zuen eta, horretara, hemendik aurrera Hiri Antolaketarako Plan Orokorren l-10 Unitatea deituko da. Era berean, aldatetako ukitutako lurralde eremu osoan lizentzien ematea etenda geldituko da. Lurzoru Erregimena eta Hiri Antolaketari buruzko Legeak erabakitakoaren arabera, espedienteak iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hurrengo hilabeteko epean jendaurrean jarriko da.

Antsoainen, 1993ko urtarrilaren 11n.
ALKATE-LEHENDAKARIA